

BITARTEKARIEK BILERA BAT ANTOLATU NAHI DUTE ALBANIARREN ARTEKO BI SEKTOREAK ADOS JAR DAITEZEN

# Kosovoko borrokak berriz piztuko diren beldur dira OSCE eta NATO

■ Negoziazioak berehala hasi ezean, tentsio handiak gerra sorraraziko duela uste dute OSCEko bitartekariak

■ Kosovoko albaniarrek ordezkari bakarra izan dezaten elkarrizketak ugaritu dituzte nazioarteko ordezkariak

■ Serbiako ortodoxoen patriarkak Kosovo defenditzera deitu ditu serbiarrak, eta umeak izateko eskatu die

Erredakzioa / Donostia

ABENDUAREN amaierako borroka irekien eta azken egunotako gertakarien ondorioz, ezkor dira orain Kosovoko gatazkari irtenbide bakte-sua eman nahi dioten nazioarteko erakundeak. NATOk, OSCEk eta Chris Hill bitartekari estatu batuarrek esan zuten berriro gerra irekia hasteko arriskua handia zela. Borroka horiek ziur aski udaberrian edo hori baino lehen hasiko lirarteke, elurra guztiz urtu baino lehen.

Bitartekari lana egin nahi duen Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundearen (OSCEren) izenean, Knut Vollebeak norvegiarrak esan zuen bereziki kezkatzen zuela otsailaren 28ak, egun horretan betetzen baita urtebete Kosovoko albaniarren eta segurtasun indar serbiarren arteko gerra hasi zela. Bruselan, NATOko 16 herrietako enbaxadoreek Kosovoko gaia besterik ez zuten aipatu atzoko bileran eta oso larrituta azaldu ziren, su-etena oso hauskorra iruditzen baitzaie.

Chris Hill, bitartean, Ibrahim Rugova albaniarren *presidente* moderatuarekin elkarrizketatu zen asteartean, Belgradeko erregimena-ekin bake elkarrizketak has-te ezinbestekoa dela gogorazteko. Nazioarteko ordezkariak eginahalak egiten ari dira negoziazio horietan albaniarrek ordezkari bakarra eraman dezaten. Halaber eskatu zien herenegun Albaniako Gobernuak.

Hori lortu ahal izateko, bitartekariak albaniar lider guztien arteko bilera egin nahi dute hilabete honen bigarren erdian Vienan edo Tiranen. Bilera horretan egongo lirarteke Rugova bera, UCK gerrilla independentistaren ordezkari politikoa Adem Demaci, erbesteko gobernu-buru Bujar Bukoshi eta oposizioko Rexhep Qosjia. Albaniarrei presio egiteko parte hartuko dute bilera horietan Kontaktatu Taldeko



LOUISA GOULIAMAKI / EPA

**Urosevaceko hilobi komuna ikertuko du OSCEk.** Kosovoko gatazkan bitartekari lana egiten duen OSCE erakundeak ikus-katzaileek bisitatu egin zuten asteartean Urosevac herrian ustez 11 albaniar —zortzi ume eta hiru emakume— lurperatuta dauden lekua. OSCEko ordezkariak ziurtatu zuten ikerketa bat egingo dutela. UCK-ko gerrillariak abuztuan salatu zuten serbiarrek Aslani familiako 11 kide horiek hil zituztela bonbardaketa batean eta lurperatu zituztela. Jugoslaviako Justizia ministro Zoran Knezevick ziurtatu du ez diotela Hagako Nazioarteko Auzitegiari Kosovon esku hartzen utziko, «ez baitago gerrarik, terrorismoa baizik».

ordezkariak (Estatu Batuak, Frantzia, Errusia, Alemania, Erresuma Batua eta Italia).

## Serbiako Elizaren deia

Kristau ortodoxoen Eguberriaren bezperako mezuan, Pavle patriarkak Kosovoren serbiartasuna defenditzeko deia egin zien serbiarrei. «Gaur egun mehatxatuta dago Serbiako Estatuaren eta izpiritualtasunaren sehaska. Kosovo galtzea gure arimak eta gu geu zalantzan jartzea izango litzateke», esan zuen patriarkak. Pavlek deia egin zien Kosovoko serbiarrei seme-alabak izateko, albaniarren presio demografikoari (biztanleen % 90) ahal den moduan aurre egiteko.

## Indarkeria-gaua Pristinan

■ ASTEARTE arratselan Pristinako auzo serbiarrean izandako atentatuak tentsioa handitu du Jugoslaviako lurralde hartan. 20.15ak aldera, ezezagun talde batek granada bat bota zuen serbiarrak bezerotzat dituen Cafe Cool kafetegia-  
ren aurka. Bi gazte-  
txok eta emakume gazte batek zauri arinak jasan zituzten eta ospitalean sendatu zituzten.

Ekintza horrek

serbiarren erantzuna ekarri zuen asteartetik atzarako gauean. Albaniar iturrien arabera, serbiar taldeek me-  
trailetaz eraso zieten albaniarren kafetegi-  
iei, eta denda bat-  
zuei. Hainbat beira txikitu zituzten eta gutxienez lau albaniarrek zauri arinak izan zituzten.

Indarkeria-gaue-  
ren ostean, atzo ego-  
era barea baina ten-  
sioz betetakoa zen Kosovoko hiribu-

ruan. Pristina guztiz hartuta dute Serbiako Poliziak eta Armadak eta Eguberriaz geroztik berriro piztu diren gatazketatik salbu izan da orain arte.

OSCEko bozera-  
maile Sandy Blithek gogor salatu zuen atentatua, «nondik datorren begiratu gabe».

Bestetik, atzo egin zuen estrenua UCK gerrilla independentistak sortu duen Kosovo Press berri

agentziak, Jakup Krasnici UCK-ko bozeramailearen elkarrizketarekin. Agintari serbiarrek ez dute oraindik onartu agentziaren eta irrati baten sorrera, nolabaiteko legitimazioa ematen baitiote beraiantzat «talde terrorista» soil bat denari. Serbiako Informazio ministro Aleksandar Vucic Kosovora abiatuko da aurki komunikabideetan ordena jartzera.